

OHARTU ZARELAKO

Olaia Azpiroz Irigorri, 15 urte

Oiartzun

Kale ilunean zoaz, pauso trakets bat bestearen jarraian emanaz, itzalak zu estaltzen zaituelarik. Gauaren igarobidea mugatzen duten horma zaharrek zure gainean jausiko direla dirudi, eta pausoen erritmo bizia azkartu duzu; baina emeki, bidaide dituzun mamu beltzak ez daitezten ohartu. Ingurua behatu, bazterrera begiratu, eta zure barneko kemenarenugarra puztu duzu; astiro, baina pausoen erritmoa pausarazi gabe, burua biratu duzu eta ezer ere ez. Soilik, zure buruarenganako mesfidantza.

Zuk uste ez bezala, igarobide ilun honen jabe ez da bakardadea. Zure inguruan dabilzan mamu beltzek hausten baitute bakardadea; nahiz eta zu bakarrik sentitu, badakizu ez zaudela bakarrik. Monotonia, kale ilun honetako errege da, eta erregina, hipokresia. Hipokresia maltzurra faltsukeria. Bai, hala da: eskutik hartu, begietara begiratu, eta mundu osoko maitasun guztiaz “maite zaitut” esan, eta ostean beste batekin besarkatuta elkar musukatuz ikusi duzunaren faltsukeria berbera. Baina oraingo honetan, mamu beltzen altzoan gorderik

dator zuregana... zu ohartu ez bazina gisan, baina ez dizu ziria sartuko, zu adi baitzaude.

Ohartu ezean, zure hankak aurrerantz doaz, erritmoa azkartuz, atsedenaldi txiki eta isil bakar bat ere egin barik. Zure pentsamenduen sakon-sakonean murgildu zara, eta oroimenen zurrunbiloen esku utzi duzu zure pentsamenduen habia. Oroitzapen liluragarriak datozkizu burura, bizikletan lehen aldiz bi gurpilen gainean ibiltzea lortu zenueneko, lehen mozkorraldia hartu zenueneko, lehen elkar-musukatzea, lehen maitalea, lehen larru-jotzea... hain zoriontsu izan zinen, eta orain hain galdua... zorioneko biderantz zindoazela, ohartu ezean, bidegurutze batean, okerreko bidezidorra hartu eta... orduan ere, hipokresiak ziria sartu zizun. Oroimenen zurrunbilo liluragarriak indarra galdu du, oroitzapen hoberenak agortu ostean, amets txarrak sortzen hasi baitzaizkizu, eta bat-batean pentsamendu guztiak ezabatuz, zuri utzi duzu pentsamenduen habia, huts.

Eta zure hanken erritmo biziak, ia kez itorik dau-den biriken arnas estuak, inguruan duzun iluntasunaren sakoneko monotonia errege eta hipokresia erreginaren gaztelupeko maltzurkeriak... Buruko min nabaria sortu dizu, bat-batean burua lehertzeaz duzu; eta iraganean gatibatutako une latzenak, duela pare bat minutu, zure pentsamendu eta oroitzapen onen habia ordezkutzen saiatu diren amets txarrak, gogora etorri zaizkizu. Ondoren, zure gorputza goitik behera igaro duen zirrara hotz eta desatseginak guztia hankaz gora jarri ostean, gogo-

an zenuen guztiaz ahaztarazi eta zure bidearekin jarraiarazi dizu. Baina buruko mina ez du uxatu, bertan dihardu zuri molestia sortzen.

Honek baretuko zaituelakoan, erabat zimurtuta dagoen tabako kaxatik, zure birikak kez lepo jarriko dituen zigarro desitxuratua atera duzu. Nekez, zure gorputzaren oreka mantentzen duzularik, zigarro malapartatuari sugarra hurbildu eta su eman diozu. Jarraian, zaporegabeko aho lehorre-rantz gidatu duzu, eta erretzeari ekin.

Aurrerantz jarraitzen duzu, egia esan, noraezean; ez baituzu ez xede, ez helbururik. Gogoan duzu, oraindik, zure oroitzapenen habia, eta zure buruari zin egin diozu, behin eta berriz esanaz, inork sekula ez dizula ostuko ez habia ez altxor hau. Orain zure menpe dauden gauzetatik garrantzitsuena, habia hori dela ohartu baitzara. Urte asko igaro dira, zure maiteak bizia ostu zizunetik, heriotzak, alaitasuna ezabatu zizunetik, eta medikuek, itxaropen gabe utzi zintuztenetik. Beraz, habia hori ahal bezain ondo, zure barnean mantenduko duzula hitz eman ondoren, eskuan daramazun eta jada ia guztiz kontsumitua dagoen zigarro ketsua lurrera bota ostean, molestia gehiegi iruditu zaizu itzaltzea eta aurrera jarraitu duzu zure pauso biziekin, taberna hotz baten atarira iritsi zaren arte.

Pentsatu barik, taberna hotzera sartu zara, zure gorputzaren jabe beste edonor izango balitz lez. Zuzenean, zure aurrean kokatua dagoen aulki ziztrin batean utzi duzu zure gorputzaren pisua eror-

tzen; eta agurrik esan gabe ondoan dagoen neska ahularen begirada lotsatiarekin ohartu zara zure zain dagoela. Jarraian, kafe bat hutsa eta doblea eskatu duzu. Bat-batean, zure inguruko betikotasuna hausten duen telebista zatarrari so geratu zara. Zure burua behartuta egongo balitz gisan, adi-adi zaude aparatu zaratatsuak dioenari, baina jaramon egin arren ezertaz ohartzen ez zarela konturatu ostean, zure ingurua behatzeari ekin diozu. Taberna ilun eta hezearen ertzean kokatua dagoen zakur edadetuaren begirada zorrotz eta sarkorrek, zure barnean hutsunea sortu du, barru-barruraino barneratu zaizu, bihotza ostuko balizu bezala. Instante horretan erabat biluzik sentitu zara: sentimendu barik, pentsamendu barik, babesle barik, lagun barik... bizi barik. Izan ere, orduantxe konturatu zara azken urteetan ez duzula zure nahirik egin; ez duzu desiorik, ez maiterik, ez ezer. Une desatsegin amaigabea, amaierara iritsi eta, neska umilak, duela asko ateratako batere erakargarria ez den kafe iluna aurrean duzula ikusiaz, motel-motel eskua katilurantz hurbildu duzu. Katilua inguratu orduko, zure aho lehorraren aurrean duzu. Lehengo zurrutada eman ostean, kafe hutsaren zaporea sentitu, eta hotza dagoela antzeman ahal izan duzu. Nahi ezean, zure gorputza atzera bota duzu, ez du onartu kafe hutsaren zapore hotza zure mihi lehorrean. Eta ia pentsatu gabe, eskuarekin kafe ilunaren katilua zuregandik alden duzu; sekula, horrelako zaporerik zure gorputzean sartu ez balitz gisan.

Pentsakor zaude, inori agurrik ere esan gabe, sartu zaren moduan irten zara tabernatik. Albora begiratu duzu, azkeneko aldiz taberna behatu, eta zure barnerako, sekula ez zarela itzuliko esan ostean, tabernaren eskaparateko kristal zikinean zailtasun apur batez ikus daitekeen zure islan erreparatu zara. Ezezagun bat ikus dezakezu, sekula ezagutu ez duzun pertsona bat, eta harritu egin zara. Zu baitzara. Duela 10 bat urte, ez zenuen pentsatuko zu horrelakoa izatera iritsiko zinenik, hain zinen zorionsua, hain atsegin... eta orain, ispilu zikin batean begiratu eta dakizu nolatan iritsi zaren horrelakoa izatera, benetan tamalgarria.

Aurrera jarraitzen duzu, atsekabetuta, eta etxe zahar bateko alokatua duzun azken pisuko gelaxora, zuk, “etxea” deitzen diozun txokora abiatu zara. Burumakur, errealitateaz jabetzen ari zarela uste arren, soilik hasiera argiztatu duzu. Iritsi zara, zure gordelekura. Gizartetik bakandua sentitzen zarenean, zure irtenbide izaten den lekura, zure “etxera”. Baina ez zara ohartzen, zu zarela bakan-tzen dena, baztertzen dena, zu zara errudun: zarena zarelako, egiten duzuna egiten duzulako, pentsatzen duzuna pentsatzen duzulako... bere garaian, zure eskuetan zegoen guztia; izan zenuen beta, guztia bide onetik gidatzeko, baina zuk erabaki zenuen zure gisara egitea. Eta beraz, zu zara errudun, eta jabetzen hasteko garaia duzula ohartu behar duzu. Baina zuk, zure buruari “lasai, guztia konponduko da” esanda igaro zenituen zoriontasunaren bidetik urruntzen zindoazen 10 urteak...

badakizu medikuen, maitearen, heriotzaren...
errua izan zela, baina zu ere izan zara, eta ez daki-
zu edo ez duzu jakin nahi...

Eskailerak igotzeari ekin diozu, hankak bat-bes-
tearen jarraian altxatuz. Sekula erreparatu ez
zenion hormari begiratzen diozu, zure ezkerretara
dagoen pareta ilunari. Jende askok begiratu arren,
ezer ere ez diela transmititzen esan arren, zuri sen-
timendu asko transmititzen dizkizu, beldurra,
iluna, noraeza... eta iritsi zara zure txokoko bidea
oztopatzen duen atera. Giltza sarrailan sartzerako-
an, honen hotsa entzun, eta oihartzun bihurtu da,
hots hori guztiengana iritsi dela iruditu zaizu, eta
aurrera egin duzu. Barnean zaude, babesturik, gor-
derik. Etxea inposatzen duen melodia ahula en-
tzuten da, irratia piztu duzunaren doinua.
Ordularia begiratu, eta 23:30 dira, ez duzu afaldu,
baina sabelak ez du igarri: utzikeriaren morroi.
Hilabeteak garbitu gabe daramatzen leihorantz
hurbildu zara, eta kanpoan dagoen jendeari erre-
paratu diozu; eskuinean, bikote edadetu bat,
hauengandik ez oso urrun, emakumezko bat.
Bistakoa da norbaiti itxaroten dagoela, ez baitu
erlojua begietatik kentzen. Baina zure ikusmira,
une honetan, ezkerrean dagoen bikote gaztea
da. Elkar musukatuz, laztanduz, desiratuz, maita-
tuz... obsesiboki besarkatuz.

Duela 10 bat urte, zu zinen zorteduna, hauen
antzera ibiltzen zinen zure maitearekin, baina
hipokresiaren biktima bihurtu zinen gauetik egu-
nera. Bi gazteen erromantzeak, oroitzapenera eka-

rri zaitu, zure iraganeko bizimodua. Hain maitea zenuenaren faltsukeria, heriotzaren ezustea, medikuen albistea... malkoak isuri dira zure begietatik, barneko minaren tantoak. Maitasuna ederra dela diote, baina zuk badakizu ez dela hala. Bi pertsonen arteko maitasuna, ederra izan daiteke, baldin eta biek bienganako sentimendu berdina badute. Zure hipotesia da.

Bihotz minduaren oihuak, deiadarrak, entzun ditzakezu bakarrik zaudenean. Aspaldian ez zenuen pentsatu zure iraganean, ustez, zeharo ahaztua zenuelakoan... gorputza atzera bota duzu, ez duzu nahi gehiago oroitu duela 10 urte igarotakoaz. Adarrak bihotzeraino iritsi zitzaizkizun gisan, heriotzak amaren bizia ostutzearekin batera, zure alaitasun apurra ostu zizun, eta medikuen hitz faltsuak ezin kendu burutik. Eta gelaren bazterre-rantz gidatu duzu gorputza, lurrean eseri, eta ilunean, negar-malkoak ihes egiten dizutelarik, oihuka hasi zara. Amorruez betetako oihuak. Minez betetakoak, tristuraz, gorrotoaz... ezin ken dezakezu burutik, zure pentsamenduen habia, gertaera tamalgarrien uholdeak suntsitu du, erabat. Eta urte askotan barnean gorde zenuen sufrimendu guztia kanporatu duzu, behin eta berriz oihu eginez, malkoak isuriz, eta ilunean gorderik.

Tabako kaxa desitxuratutik, azken zigarroa atera, eta sutsuki erretzeari ekin diozu. Zure birketan sortuko duen kalteari erreparatu gabe. Egia esan, une honetan, ez dizu ezerk ere axola... ke iluna zure barnean sartzen doan heinean, zu bare-

tzen zoaz. Eskuarekin, malkoek utzitako arrastoak ezabatu, eta zigarroa itzali ostean zutitu egin zara. Eta orain bai, orain hasia zara ohartzen zuk duzun erruaz. Ohartzen hasi zara, zu zarela egoera horren errudun. Orain ez du balio damutzeak, badakizu. Duela 10 bat urte, gehien maite zenuenak adarrak jarri izanak, heriotzak, etxeko atea jo gabe, baimenik gabe, ama berarekin eraman izanak, medikuek, hipokresia osoz, amaren gaixotasunari dagokionez, gezurra esan izanak... ez du arrazoitzen egindakoa. Eta ohartu zara, zuk izan duzula ia guztiaren errua. Bere garaian, lagunei laguntza eskatu ordez, drogei eskatu izanak, orain amorrua sortzen dizu. Baina zuk erabaki zenuen drogen lagun izatea, laguntza eskaintzen zizutenengandik urruntzea, zure pentsamolde bera ez zutenei gaizki begiratzea...

Ez du gogorik zarena izateko, egiten duzuna egiteko, pentsatzen duzuna pentsatzeko... “komuna” derituzon gelatxoara joan zara, ispiluan begiratu, eta “hemendik aurrera, bide egokia bilatuko eta jarraituko dut, zoriontasunera gidatuko nauena” esan, eta ostean ohean etzan zara. Nekearen ondorioz, loari utzi diozu zure gorputzaren jabe izaten, 6-7 orduz bada ere. Bihar, beste egun bat izango da, oroitzapen onen habia berreraikiko duzu, eta 10 urtez bizitutako uneak zeharo ezabatu. Biharamunean, beste bat izango zaren itxaropenarekin, ametsen munduan murgildu zara; behintzat zoriontasuna bertan aurki dezakezulako, ohartu zarelako.